



Desorekak eta aktibazio-energiak

J.M. Rodriguez Ibabe*



Egoera normal batean, lagun batek egunero zortzi ordu pasatzen du bere lanpostuan. Lagun horrek industria batean lana egiten baldin badu, proportzio handi batean, lanari buruzko elkarrizketak, idazlan teknikoak, txostenak eta abar erdaraz egingo ditu. Egoera hori egunero errepikatzen ari da Euskal Herriko lantegi gehienetan. Aldizkari honetan aipatua izan denez, egoera horri aurre egiteko, zenbait lantegitan plangintza bereziak martxan jarri dira.

Gaur egun hizkuntza ezin da kultura-arloan bakarrik kokatu. Gure kasuan konkretuki, bai ekonomia-mailan baita industrian ere euskarren egoera aztertu egin behar da eta ondoren erabakiak hartu. Horretarako, lehen aipatutako plangintza bereziaz gain, une honetan gure esku dauden gainontzeko baliabide guztiak erabiltzera behartuta gaude. Horietako adibide bat ondoren aipatuko dugu.

Duela hilabete batzuk, beste urtetan bezala, langileen ezagupenen hobekuntza lortzeko asmoz, Hezilan eta Hezitek deituriko programak jarri dira martxan Gipuzkoan, Foru Aldundiko Ekonomia Departamentuaren babesean. Programa horietan, lehenengo seihilekoan, 650 ikastaro emango dira Gipuzkoa osoan. Horietariko batzuk lanbide-heziketako ikastetxeetan emango dira, eta beste batzuk unibertsitateetako fakultate eta zentru teknologikoetan. Gaiak oso zabalak dira (enpresen gestioa, informatika, kontrola, ordenadorez lagunduriko diseinua, teknologia berriak, produktibitatea, sukaldaritza eta abar), ikastaro batetik bestera konplexutasunak eta ordu-kopuruak ere oso desberdinak direlarik.

Askotan, eta hori teknologi arloan ari garenoi ere gertatzen zaigu, ez gara konturatzen langileen eta teknikoen ezagupenen hobekuntza

euskararekin erlazioa daitekeenik. Lehen aipatutako ikastaro horiek ez dira Foru Aldundian prestatu, ikastetxeetan, fakultateetan eta zentru teknologikoetan baizik. Erakunde publikoak babes ekonomikoa ematen die, besterik ez. Hala ere, nahiz eta ikastaro horien plangintzan hainbeste lagunek parte hartu eta ikastaroetan aztertzen diren gaiak hain desberdinak izan, dirudienez gehienei ez zaie okurritu (ala azaldu diren zailtasunak gaindiezinak gertatu zaizkie) ikastaro horiek euskaraz eman daitezkeenik. Desoreka nabarmena da, eta ziurraski euskaraz emango diren ikastaroak ez dira % 5era iritsiko (portzentaia hori oso baikortzat har daiteke).

Urtero mota horretako prestakuntza-planetan diru asko erabiltzen ari da eta diru horren optimizazioa ere aztertu egin behar da ikuspuntu desberdinetatik. Lehen esan dugunez, euskara ezin da bakarrik kultura-sailen plangintzetan kokatu (eta ondorioz, diru-kopuru zehatza horretarako zuzen-zuzenean erabili). Lantegietako langileen eta teknikoen ezagupenak gaurkotzeko erabiltzen ari diren baliabide ekonomikoek ere, neurri handi batean, industrien euskalduntze-prozesua erraz dezakete. Horretarako, eta beste arlotan gertatzen ari den bezala, erakunde publikoek ikastaro horien prestakuntzan diharduten lagun eta erakundeei laguntza eta bultzada eman beharko dizkiete. Gaur egun gauden desorekatik ateratzeko, termodinamikan esaten den legez, aktibazio-energia handia behar da, eta une honetan, badirudi gizarte pribatua ez dela bera bakarrik hori aurrera eramateko gai.



* CEITeko ikerlaria eta Nafarroako Unibertsitateko Injineru-Eskolako irakaslea.